

## Giza Garapenari buruzko Txostena 2009

Oso mundu desorekatuan bizi gara. Munduko biztanle askorentzat, beren bizilekua uztea izan liteke bizitza hobetzeko irtenbiderik onena, eta, zenbaite-tan, bakarra. Migrazioa oso eraginkorra izan daiteke banakoen eta familien diru-sarrerak, hezkuntza eta partaidetza areagotzeko, eta beren seme-alaben etorkizuneko ikuspegiak hobetzeko. Baina, balio handiago bat ere badauka: non bizi erabakitze gaitasuna giza askatasunaren funtsezko gakoa da.

Munduko migratzaileek ez dute profil bat eta bakarra: sasoiko fruta-bil-tzaileak, erizainak, errefuxiatu politikoak, eraikuntzako langileak, irakasleak eta ordenagailu-programatzaileak dira. Horiek guztiek beren herrialdeen barrualdera edo mugen bestaldera joaten diren ia mila milioi pertsona osa-tzen dute. Jendea beste leku batera joaten denean, herrialdean bertan zein atzerrian, itxaropenez eta ziurgabetasunez betetako bidaia batean murgiltzen da. Pertsona gehienak aukera hobeen bila abiatzen dira, eta beren talentua eta helmugako herrialdeko baliabideak bateratzeko asmoa izaten dute, haien eta senideen onerako. Izan ere, senideak, lehenago edo geroago, haiengana hur-biltzen dira. Oro har, tokiko komunitateek eta gizarteek ere ateratzen diote onura, bai jatorriko herrialdean, bai helmugakoan. Pertsona horien anizta-sunaren eta haien mugimenduak erregulatzen dituzten arauen eraginez, giza mugikortasuna gaur egungo munduak jasaten duen gai konplexuenetako bat bihurtu da; batez ere, egungo munduko atzeraldi honetan.


*Mugak gaindituz: giza mugikortasuna eta garapena* txostenean, mugikortasunaren inguruko politiken hobekuntzak giza garapena nola estimula dezakeen aztertzen da. Lehendabizi, gizakiaren lekualdaketa erro orokorrak marrazten dira (nor, nora, noiz eta zergatik), eta gero, aldaketa horrek migratzaileengan zein haien senideengan eta jatorrizko zein helmugako herrialdeetan zer eragin edo ondorio izaten dituen aztertzen da. Gainera, gobernuak mugen barrualdera zein mugen bestaldera lekualdatzeko murrizketak zergatik murriztu behar dituzten azaltzen da, biztanleek beste aukera batzuk eta askatasun gehiago izan ditzaten. Beste alde batetik, iritsi berrien aukerak hobetzeko neurri praktikoen alde egiten da; izan ere, neurri horiek onura handiak izaten dituzte migratzaileak hartzen dituzten herrialdeetan eta atzean uzten dituztenetan. Aldaketa horiek helmugako gober-nuei zuzenduta egoten dira, bai eta jatorrizko gobernuai, beste funtsezko parte-hartzaile batzuei (batez ere, sektore pribatuari, gremio-elkarteei eta gobernu kanpoko erakundeei) eta migratzailei beraiei ere.

*Giza garapenari buruzko 2009ko txostenaren bidez, giza garapena nabar-mentzen da, agintariek beren garapen-agendan sar dezaten, emaitza onenak lortu nahi badituzte, mundu osoan gero eta konplexuago bihurtzen ari den giza mugimenduaren ereduaren oinarrituta.*

# LABURPENA

## Giza Garapenari buruzko Txostena 2009

Oztopoak gaindituz:  
giza mugikortasuna eta garapena



# Argitaratzailea

### Euskarazko argitalpena Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren finantziazioari esker egin da

Argitaratzailea: UNESCO Etxea <p>Urkixo zumardia 60, nagusia, esk. 48011 Bilbo</p> www.unescoeh.org	
---	--

Itzulpena: Kattalin Arizmendiarrieta (Bakun S.L.)
Zuzenketak: Joxemi Hernandez (Bakun S.L.)
Argitalpenaren koordinazioa: Maider Maraña (UNESCO Etxea)
Itxaso Astigarraga (Bakun S.L.)

Inprimaketa: Gráficas Zubi	
Lege-gordailua: XXXXX	

<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>

<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>

<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>

<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>

Editing and layout: Green Ink
Design: ZAGO

For a list of any errors or omissions found subsequent to printing, please visit our website at http://hdr.undp.org

<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>

**Disclaimer:**
The analysis and policy recommendations of this Report do not necessarily reflect the views of the United Nations Development Programme, its Executive Board or its Member States.
The Report is an independent publication commissioned by UNDP. It is the fruit of a collaborative effort by a team of eminent advisers and the Human Development Report team. Jeni Klugman, Director of the Human Development Report Office, led the effort.

Klorotik eratorritako produkturik gabe zurituriko % 100 paper birziklatuan inprimatua. Paper honek “Basoen Lagunen Liburua” egitasmoan parte hartzeko ingurumen- eta giza ezaugarriak betetzen ditu. Egitasmo horrek basoen kontserbazio eta erabilera iraunkorra sustatzea du xede, batez ere, baso primarioak, planetako azken ukitu gabeak.

Argitalpen honen paperaren kontsumoa, bai eta banaketak sortuko dituen berotegi-efektuko gasak ere, konpentsatu egingo dira CeroCO<sub>2</sub> ekimenak bideratzen dituen isurketa-proiektuen bitartez. Horrenbestez, argitalpen hau “karbono neutrala” da eta klima-aldaketaren prebentzioan parte hartzen du.

# Argitaratzailea


#### Giza Garapenari buruzko munduko Txostena 2009

Txosten honekin lotutako baliabideak **http://hdr.undp.org** webgunean daude. Bertan, txosten osoak, txostenaren eta kontsulten laburpenak, mintegiak eta eztabaidak sarean, giza garapenari buruzko gaikako ikerketa-agiriak eta prentsarako informazioa ikus ditzakegu. Adierazle estatistikoen eta datuen tresna guztiak, mapa interaktiboak, herrialdeen oinarrizko datuak eta beste informazio batzuk doan eskura daitezke.

<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>
<div><span></span></div>	<div><span></span></div>

***Journal of Human Development and Capabilities***
Jendearen aldeko garapenari buruzko diziplina anitzeko aldizkaria da. Nazio Batuen Garapen Programaren (UNDP) Giza Garapenari buruzko Txostena egiteaz arduratzen den Bulegoak eta Human Development and Capability Association elkarteak argitaratzen dute. Aldizkari hori ideia-truke irekirako foroa da, eta politikari, ekonomialari eta irakasle askok hartzen dute parte. *Journal of Human Development and Capabilities* aldizkariko artikuluak adituek berrikusten dituzte; eta urtean hiru aldiz argitaratzen da (martxoan, uztailean eta azaroan). Argitaratzailea Routledge Journals da, Taylor and Francis Group Ltd taldeko argitaletxea. *Harpidetu nahi baduzu, joan helbide honetara: **http://www.tandf.co.uk/journals.***

***Giza Garapenari buruzko Txostenen gaiak***
**2007/2008** Klima-aldaketari aurre egiten: gizakion arteko elkartasuna mundu zatitu honetan
**2006** Eskasia baino gehiago: Boterea, pobrezia eta munduko ur-krisia
**2005** Nazioarteko lankidetza bidegurutzean: Laguntza, merkataritza eta segurtasuna desberdintasun handiko munduan
**2004** Kultur askatasuna egungo mundu anitzean
**2003** Milurtekoko Garapen Helburuak: giza pobreziarekin amaitzeko nazioen arteko ituna
**2002** Demokrazia sendotzen mundu zatitu batean
**2001** Teknologia berriak giza garapenaren alde
**2000** Giza eskubideak eta giza garapena
**1999** Giza aurpegia duen globalizazioa
**1998** Giza garapenaren aldeko kontsumoa
**1997** Giza garapena pobreziarekin amaitzeko
**1996** Hazkunde ekonomikoa eta giza garapena
**1995** Generoa eta giza garapena
**1994** Giza segurtasunaren dimentsio berriak
**1993** Jendearen parte-hartzea
**1992** Giza garapenaren dimentsio globalak
**1991** Giza garapenaren finantziazioa
**1990** Giza garapenaren kontzeptua eta neurtzeko modua



## **LABURPENA**

# Giza Garapenari buruzko Txostena **2009**

### **Oztopoak gaindituz:**

giza mugikortasuna eta garapena



Nazio Batuetako  
Garapen  
Programarentzat  
(UNDP)  
argitaratua

# Giza Garapenari buruzko 2009ko Txostena prestatu duen taldea

---

## **Zuzendaria**

Jeni Klugman

## **Ikerketa**

Francisco R. Rodríguez (zuzendaria), Ginette Azcona, Matthew Cummins, Ricardo Fuentes Nieva, Mamaye Gebretsadik, Wei Ha, Marieke Kleemans, Emmanuel Letouzé, Roshni Menon, Daniel Ortega, Isabel Medalho Pereira, Mark Purser eta Cecilia Ugaz (zuzendariondokoa, 2008ko urrira arte).

## **Estatistikak**

Alison Kennedy (zuzendaria), Liliana Carvajal, Amie Gaye, Shreyasi Jha, Papa Seck eta Andrew Thornton.

## **Herrialdeko giza garapenari buruzko txostena eta sarea**

Eva Jespersen (Giza Garapenari buruzko Txostenaz arduratzen den bulegoko zuzendariondokoa), Mary Ann Mwangi, Paola Pagliani eta Timothy Scott.

## **Hedapena eta komunikazioa**

Marisol Sanjines (zuzendaria), Wynne Boelt, Jean-Yves Hamel, Melissa Hernandez, Pedro Manuel Moreno eta Yolanda Polo.

## **Produkzioa, itzulpena, aurrekontua eta eragiketak, administrazioa**

Carlotta Aiello (produkzio-koordinatzailea), Sarantuya Mend (eragiketa-administratzailea), Fe Juarez-Shanahan eta Oscar Bernal.

# Giza Garapenari buruzko Txostena 2009

## Txosten osoaren edukiak

Hitzaurrea

Eskerrak

Siglak

### IKUSPEGI OROKORRA

#### 1. KAPITULUA

**Askatasuna eta mugimendua: nola erraz dezake mugikortasunak giza garapena?**

- 1.1 Mugikortasuna garrantzitsua da
- 1.2 Aukerak eta testuingurua: jendea zergatik lekualdatzen den ulertzea
- 1.3 Giza garapena, askatasuna eta mugikortasuna
- 1.4 Zein da gure ekarpena?

#### 2. KAPITULUA

**Jendea mugitu egiten da: nor mugitzen den, nora eta zergatik**

- 2.1 Giza mugimendua, gaur egun
- 2.2 Atzera begira
  - 2.2.1 Epe luzeko ikuspegia
  - 2.2.2 XX. mendea
- 2.3 Politikak eta mugimendua
- 2.4 Aurrera begira: krisialdiaren ondoren
  - 2.4.1 Ekonomia-krisia eta berreskuratzeko aukera
  - 2.4.2 Demografia-joerak
  - 2.4.3 Ingurumen-joerak
- 2.5 Ondorioak

#### 3. KAPITULUA

**Emigratzaileen zoria**

- 3.1 Diru-sarrerak eta bizibideak
  - 3.1.1 Eraginak diru-sarrera gordinetan
  - 3.1.2 Migrazioaren finantza-kostuak
- 3.2 Osasuna
- 3.3 Hezkuntza
- 3.4 Ahalmentzea, eskubide zibilak eta partaidetza
- 3.5 Alderdi negatiboen ondorioak ulertzea
  - 3.5.1 Segurtasun ezak migratzera bultzatzen duenean
  - 3.5.2 Garapenaren ondorioz egiten den lekualdatzea
  - 3.5.3 Pertsonen trafikoa
- 3.6 Eragin orokorrak
- 3.7 Ondorioak

#### 4. KAPITULUA

**Eraginak jatorrizko eta helmugako herrialdeetan**

- 4.1 Eraginak jatorrizko herrialdeetan
  - 4.1.1 Eraginak etxeetan
  - 4.1.2 Eragin ekonomikoak komunitatean eta herrialdean
  - 4.1.3 Eraginak gizartean eta kulturari
  - 4.1.4 Mugikortasuna eta herrialdeko garapen-estrategiak
- 4.2 Eraginak helmugako herrialdeetan
  - 4.2.1 Eragin makroekonomikoak
  - 4.2.2 Eragin lan-merkatuetan
  - 4.2.3 Urbanizazio azeleratua
  - 4.2.4 Eragin fiskalak
  - 4.2.5 Migrazioari buruzko pertzepzioak eta ezinegonak
- 4.3 Ondorioak

#### 5. KAPITULUA

**Giza garapenean emaitza hobekiak lortzeko politikak eta erakundeak**

- 5.1 Funtsezko neurriak
  - 5.1.1 Kanal ofizialak liberalizatzea eta sinplifikatzea
  - 5.1.2 Migratzaileei oinarritutako eskubideak bermatzea
  - 5.1.3 Giza mugimenduari lotutako transakzio-kostuak murriztea
  - 5.1.4 Migratzaileentzat eta helmugako komunitateentzat emaitzak hobetzea
  - 5.1.5 Barne-mugimenduaren onurak bultzatzea
  - 5.1.6 Mugikortasuna: herrialdeko garapen-estrategien zati bat
- 5.2 Erreformaren bideragarritasun politikoa
- 5.3 Ondorioak

**Oharrak**

**Bibliografia**

#### ERANSKIN ESTATISTIKOA

**Taulak**

**Irakurlearen gida**

**Ohar teknikoak**

**Termino estatistikoen eta adierazleen definizioak**

**Herrialdeen sailkapena**

# Oztopoak gaindituz: giza mugikortasuna eta garapena

Azter dezagun Juanen kasua. Juan Mexikoko landa-eremu batean jaio zen, familia txiro batean. Juanen familiak ahalegin handia egin behar izan zuen haren osasuna eta hezkuntza ordaintzeko. 12 urte zituenean, Juanek eskola utzi zuen, etxeko gastuei aurre egiten laguntzeko. Sei urte geroago, Kanadara joan zen osabarekin, soldata eta aukera hobeen bila.

Kanadako bizi-itxaropena Mexikokoa baino bost urte handiagoa da, eta hiru aldiz gehiago irabazten da. Juanek aldi batez Kanadan lan egiteko aukera izan zuen; eta gero, bertan geratzeko eskubidea lortu. Urteak aurrera, Juan enpresaburu bihurtu zen, eta gaur egun, jaiotzez kanadarrak direnak aritzen dira haren enpresan lanean. Emigratzearen ondorioz aukera berriak eta askatasuna lortu duteneko bat da Juan, milioika pertsonen artean. Emigratzea, beraz, onuragarria izan da bai haientzat, bai beren jatorrizko zein helmugako herrialdeentzat ere.

**Orain, Bhagyawati-ren kasua ikusiko dugu.** Bhagyawati beheko kasta batekoa da, eta Andhra Pradesh izeneko landa-eremuan bizi da, Indian. Urtero Bangalore-ra joaten da bere seme-alabekin, sei hilean eraikuntzan lan egiteko. Lan horiek egiten, Rs 60 (US\$1.20) irabazten ditu egunean. Etxetik urrun daudenean, haurrak ez dira eskolara joaten, ez dutelako bertako hizkuntza hitz egiten, eta eskola eraikuntza-eremutik oso urrun dagoelako. Bhagyawatik ez du laguntza-elikagaiak jasotzeko eskubiderik, ez dauka osasun-laguntzarik eta ezin du bozkatu, bera erregistratuta dagoen barrutitik kanpo bizi baita. Beste milioika barne-migratzaileen antzera, Bhagyawatik bizi-baldintzak hobetzeko duen aukera gutxietako bat beste herri batera joatea da, aukera hobek aurkitzeko itxaropenarekin.

Gure mundua oso desorekatuta dago. Herrialdeen arteko (eta barneko) giza garapenean dauden desberdintasun handiak behin eta berriro landu izan dira urtero idazten den Giza Garapenari buruzko Txostenean, 1990ean lehenengo argitalpena egin zenetik aurrera. Hala ere, aurtengo txostenean aztertu dugu lehendabizikoz migrazioaren gaia. Garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanle askorentzat beren jaioterria uztea izan daiteke beren aukerak hobetzeko

irtenbiderik onena, eta zenbaitetan bakarra. Izan ere, pertsona batek bere bizilekua aldatzea oso eraginkorra izan daiteke diru-sarrerei, osasunari eta hezkuntzari buruz dituen aukerak areagotzeko. Baina, balio handiago bat ere badauka: non bizi erabakitzeak aukera izatea giza askatasunaren funtsezko gakoa da.

Jendea beste leku batera joaten denean, herrialdearen barnea zein nazioarteko mugaz bestaldera, itxaropenez eta ziurgabetasunez betetako bidaia batean murgiltzen da. Pertsona gehienak aukera hobeen bila abiatzen dira beste leku batzuetara, eta beren talentuak eta helmugako herrialdeko baliabideak bateratzeko asmoa izaten dute, haien eta senideen onerako. Izan ere, sarri, senideak, lehenago edo geroago, haiengana hurbiltzen dira. Arrakasta izaten badute, beren ekimen eta ahaleginak onuragarriak izan daitezke atzean geratu direnentzat eta beren bizileku berriko gizartearentzat. Baina denek ez dute arrakastarik izaten. Beren lagunak eta familia atzean uzten duten migratzaileak askotan bakarrik sentitu ohi dira. Gainera, iritsi berriei beldurra dietenen gaitzespena jasotzen dute, lana galdu edota gaixotu egin daitezke, eta aurrera egiteko behar duten laguntza-zerbitzuak izateko aukera hutsean gera daiteke.

Giza Garapenari buruzko 2009ko Txostenean, giza garapena zer-nolako politika eraginkorren bidez hobe daitekeen aztertzen da. Gainera, gobernuak mugen barrualdera zein mugen bestaldera lekualdatzeko murrizketak zergatik gutxitu behar dituzten azaltzen da, biztanleek beste aukera batzuk eta askatasun gehiago izan ditzaten. Azkenik, etorrera hobe dezaketen neurri praktikoak defendatzen dira, erabaki hori helmugako eta jatorrizko komunitateetarako oso baliagarria izan daitekeelarik.

### Nola eta zergatik aldatzen du jendeak bere ohiko bizilekua?

Migrazioari buruzko eztabaida askoren abiapuntua garapen-bidean dauden herrialdeetatik Europako, Ipar Amerikako eta Australasiako herrialde garatuetara joaten diren korranteak izan ohi dira. Hala ere, lekualdaketa gehiena ez da bi herrialde mota horien artean gertatzen, ezta herrialdeen artean ere. Ohiko bizilekua aldatzen duten pertsona gehienek beren herrialdearen barnean egiten dute. Definizio kontserbadore bat erabiliz, barne-migratzaileak 740 milioi direla kalkulatu da; hau da, beste herrialde batera joandako pertsona kopurua baino lau aldiz gehiago. Azken horietatik herena baino zertxobait gehiago garapen-bideko herrialdeetatik herrialde garatuetara joan da; horiek 70 milioi pertsona baino gutxiago dira. Nazioarteko 200 milioi migratzailearen artean, gehienak garapen-bideko herrialdeetatik garatuetara joan dira, edo herrialde garatuen artean mugitu dira (1. mapa).


Migratzaile gehienek (barneko zein nazioartekoek) diru-sarrera hobek, hezkuntzarako eta osasunerako erraztasunak, eta haien seme-alabentzako

aukera gehiago dituzte (1. irudia). Inkesten arabera, gehienak pozik sentitzen dira helmugako herrialdean,

#### 1. irudia

#### GGI apala duten herrialdeetatik datozen migratzaileek lorpen gehiago izaten dute eskolaratze-aldian

Matrikulazioaren guztizko tasa gordina jatorrizko herrialdean versus helmugako herrialdean, jatorrizko herrialdeko GGIn kategoriaren arabera (2000ko errolda edo azken bertsioa)




Iturria: Ortega (2009).  
Oharra: Matrikulazioaren tasa garbia lehen, bigarren eta hirugarren hezkuntzan.

#### 1. mapa

#### Mugimendu gehienak munduko eskualde hauen artean izaten dira

Nazioarteko migratzaileen jatorria eta helmuga, 2000. urtearen inguruan



Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostena prestatu duen taldearen kalkulak, Migration DRC-ren (2007) datu-basean oinarrituta.


nahiz eta egokitze-prozesu ugari eta bizilekuz aldatzeak dakartzan hainbat muga gainditu behar izan. Finkatu ostean, migratzaileak bertakoak baino gehiago integratzen dira gremio-elkarteetan edo erlijio-talde eta bestelakoetan. Hala ere, abantailak eta desabantailak daude, eta mugikortasunaren onurak oso modu desorekatuan banatzen dira.

Gatazken eta segurtasunik ezaren eraginez lekualdaten diren pertsonak erronka bereziak izaten dituzte. Gutxi gorabehera, 14 milioi errefuxiatu – hau da, munduko migratzaileen % 7 inguru– beren herrialdetik kanpo bizi dira. Gehienak ihes egin duten

herrialdetik hurbil geratzen dira, eta kanpamenduetan bizi ohi dira, egoera hobetu eta etxera itzultzen direnera arte. Hala ere, urtero, milioi erdi pertsonek herrialde garatu batera bidaiatzen dute, eta babes politikoa lortzen saiatzen dira. Askozaz pertsona gehiago, 26 milioi inguru, barne-migratzaileak dira. Mugarik zeharkatzen ez dutenek zailtasun bereziei egin behar izaten diete aurre; izan ere, normalean gatazkaren bat edo hondamendi natural bat izandako herrialde batean egoten dira, etxetik urrun. Beste talde bat ere bada, gizakien trafikoa jasaten dutenek osatutakoa. Berezi emakume gazteekin trafikatzeko da; eta normalean, bitzta hobeak izango dituztela esan eta engainatu egiten dituzte. Haien lekualdatzea ez da borondatezkoa izaten, derrigortua baizik, eta askotan indarkeria eta sexu-gehiegikeriak jasan behar dituzte.

Orokorrean, hala ere, jendea borondatez mugitzen da baldintza hobeak dauden lekuetara. Nazioarteko migratzaileen hiru laurden baino gehiago jatorrizko lekuan baino giza garapen-maila hobea duten herrialdeetara joaten da (2. irudia). Hala eta guztiz ere, pertsona horiek murrizketa handiak izaten dituzte, herrialde horietara sartzea oztopatzen duten politiken eta lekuz aldatzeko dituzten baliabideen eraginez. Hori dela eta, gutxien emigratzen dutenak herrialde txiroetako biztanleak dira: adibidez, afrikarren % 1 baino gutxiago lekualdatu da Europara. Horrenbestez, historiako eta gaur egungo zifren arabera, garapena eta migrazioa batera doaz: giza garapen apala dagoen herrialde batean, batezbesteko emigrazio-tasa % 4 baino baxuagoa da; eta garapen-maila handia duen herrialdean, berriz, % 8 (3. irudia).


**2. irudia** Txiroenak dira emigratzean gehien irabaz dezaketenak...  
Desberdintasunak jatorrizko eta helmugako herrialdeen GGren artean, 2000tik 2002ra



Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostena prestatu duen taldearen kalkulak, Migration DRC-ren (2007) datu-basean oinarrituta.  
Oharra: Batezbestekoak Kernelen dentsitatearen erregresioak erabiliz kalkulatu dira.

**3. irudia** ... baina haiek emigratzen dute gutxien  
Emigratio-tasak, GGI eta sarreren arabera

Batezbesteko emigratio-tasak, jatorrizko herrialdeko GGren arabera



Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostenaren taldearen kalkulak, Migration DRC-ren (2007) eta NBERen (2009e) datu-baseetan oinarrituta.

**Oztopoak giza mugimenduari**

Nazioarteko migratzaileen ehunekoa nahiko egonkorra da: azken 50 urteetan % 3 inguru izan da, faktore batzuek bilakaera hori areagotu bazezaketen ere. Demografia-joerek (zahartzea herrialde garatuetan, eta gero eta gazte gehiago izatea garatu-bideko herrialdeetan) lan-aukera handiagoek, eta komunikazio eta garraio merkeagoek “eskara” areagotu dute. Hori horrela izanik ere, migratu nahi dutenak gobernuak ezarritako gero eta oztopo zorrotzagoak aurkitzen dituzte. Azken mendean, estatu-nazioak laukoiztu egin dira, ia 200 izatera iritsi arte. Horrela, zeharkatzeko muga gehiago sortu dira, eta erreforma politikoen murrizketa gehiago jarri dizkiote migrazioari, nahiz eta ondasunak trukatzeko oztopoak murriztu diren.

Kalifikazio baxua duten pertsonak are muga gehiagori egin behar izaten diote aurre, bizilekua aldatu



nahi dutenean, herrialde aberats askoren laneskueskaera handia izan arren. Politikek heziketa gehien duten pertsonen alde egiten dute, gehienbat; esaterako, ikasleei geratzeko baimena ematen zaie titulua lortu ondoren, eta profesionaleri beren familiekin geratzeko aukera ematen zaie. Aitzitik, gobernuak anbiguoagoak izan ohi dira ezagutza espezializatu gutxi duten langileekin, haien estatusa eta tratua ez baita egokia izaten, zenbaitetan. Herrialde askotan, nekazaritzan, eraikuntzan, manufaktura-industrian eta zerbitzuetan daude lanpostuak, eta migratzaileek betetzen dituzte. Hala ere, sarritan, gobernuen joera izaten da heziketa gutxien duen jendea lanpostu horietan txandakatzea, orain herrialdean hartuz, orain herrialdeetik irtenaraziz, eta aldi baterako langileak eta egoera irregularrean daudenak iturri bateko uraren antzera erabiliz: nahi denean irekiz eta nahi denean itxiz. Gaur egun, egoera irregularrean bizi eta lan egiten duten 50 milioi pertsona inguru daude. Zenbait herrialdeetan onartzen dute langile irregular ugari izatea; esaterako, Estatu Batuetan eta Thailandian. Egoera horri esker, gainera, langile horiek aukera dute beren jatorrizko herrialdean baino hobeto ordaindutako lanetan aritzeko. Hala ere, nahiz eta gehienetan bertakoen lan bera egin eta zerga berberak ordaindu, ez dute, sarri, oinarrizko zerbitzurik izateko aukerarik izaten, eta erbestertzeko arriskua izaten dute. Gobernu batzuek (Italiak eta Espainiak, esaterako) onartu egin zuten kalifikazio gabeko etorkinek nolabaiteko ekarpena egiten ziotela gizarteari. Hori zela eta, lana zeukaten etorkinen egoera erregularizatu egin zuten. Beste herrialde batzuetan (Kanadan eta Zeelanda Berrian, adibidez), ondo diseinatutako programak dituzte nekazaritza-sektorean eta beste sektore batzuetan aritzen diren urtaroko migratzaileentzat.

Adostasun handia dago esaterakoan helmugako herrialdeentzat oso baliagarria dela langile kalifikatuen migrazioa, baina gutxi kalifikatutako langileen baliagarritasunari buruz eztabaida handiak sortzen dira. Izan ere, pertsona horiek lanpostu hutsak bete baditzakete, bertako langileak ordezkatu eta soldatak murrizt ditzaketela uste da. Badira beste kezka batzuk ere: delinkuentzia areagotzeko arriskua, tokiko zerbitzuetarako zama areagotzea, eta gizartearen eta kulturaren arteko kohesioa galtzea. Hala ere, kezka horiek gehiegizkoak dira, ia beti. Ikerketen arabera, zenbait egoeratan migrazioak eragin negatiboa du, herrialdean jaio eta antzeko kalifikazioak dituzten langileentzat. Baina ikerketa horietako datuek eragin horiek garrantzirik gabekoak direla adierazten dute, eta zenbait testuingurutan, ez dagoela horrelako eraginik.

### Giza mugikortasunaren aldeko argudioak

Txosten honetan argudiatzen da migratzaileek ekoizpena areagotzen dutela, bertakoentzat oso kostu baxuak edo kosturik izan gabe. Izan ere, eragin positiboak askoz ere gehiago izan daitezke; esaterako, haurrak zaintzen lan egiten duten migratzaileei esker, helmugako herrialdeko amek etxetik kanpo lan egin ahal izatea. Gainera, migratzaileek hizkuntza ikasi eta diru-sarreraren mailan gora egiteko behar diren beste trebakuntza batzuk izatean, haietako asko nahiko modu naturalean gizarteratzen dira. Horrela, atzerritar iritsi berriek egun sortzen duten asimilazio-ezintasunari buruzko kezka oinarririk gabea da, XX. mendearen amaieran Estatu Batuetan irlandarrei buruz adierazitako kezkak bezala. Baina ikus daiteke migratzaile askok desabantaila sistematikoei aurre egin behar dietela, gainerako biztanleen baldintza beretan tokiko zerbitzuak izaten uzten ez dietelako edo zailtasunak jartzen dizkietelako. Arazo horiek oso larriak izaten dira aldi baterako langileentzat eta egoera irregularrean dauden langileentzat.

Jatorrizko herrialdeetan, honako hauetan nabaritzen da mugimenduaren eragina: diru-sarrerak eta kontsumoak gora egitean, hezkuntza eta osasun hobekia izatean, eta kultura- zein gizarte-maila hedatzean. Bizilekua aldatzeak berehalako onurak dakartza; segituan, dirua zuzeneko senideei bidaltzen diete. Baina, bidalitako diru hori gastatu ahala, abantaila horiek beste batzuegana ere iristen dira, ahalik eta modu orokorrean (horrela, bertako langileentzako enpleguak sortzen dira), eta haien jorkaera aldatzen da, kanpotik etorritako ideia berrien bidez. Emakumeak, bereziki, beren ohiko roletatik aske gera daitezke.

Eragin horien izaera eta hedapena baldintza hauen arabera izan ohi da: nork emigratzen duen, nola bizi den kanpoan, eta bere senideekin harremanetan jarraitzen duen ala ez diru-fluxuaren, ezagutzen eta ideien bidez. Migratzaileak talde handietan etortzen dira, normalean, leku jakin batzuetatik; esaterako, Kerala-tik (India) eta Fujian probintziatik (Txina). Hori dela eta, komunitateetan herrialdeetan baino eragin handiagoa nabaritzen da. Epe luzera, berriz, giza mugimenduak sortutako ideiek eragin handiak izan ditzakete gizarte-arauetan eta herrialde osoko klase-egituran. Zenbaitetan, langile kalifikatuen exodoak ondorio negatiboak dituela uste da; bereziki, hezkuntza eta osasun-zerbitzuetan. Baina, hala izango balitz ere, egitura-arazo inplizituak (esaterako, soldata baxuak, finantzamendu desegokia eta erakunde ez-

Giza mugimendua geldiarazten duten oztopoak murriztu eta migratzen dutenentzako tratua hobetzen bada, giza garapenerako fruitu handiak lor daitezke

perfektuak) lantzeaz arduratzen diren politikak dira eragin horien erantzunik onenak. Langile kalifikatuak joatearen errua langileei leporatzen bazaie, ez da ondo ulertu benetako arrazoia, eta pertsona horien mugikortasuna murriztea kalterako izan daiteke, beren herrialdea uzteko oinarrizko giza eskubidea urratzen zaiela ahaztu gabe.

Hala ere, nazioarteko migrazioa, ondo kudeatzen den kasuetan barne, ez da herrialde bateko giza garapenaren estrategia bat. Ez dirudi emigrazioak nazio oso baten garapen-ikuspegiak definitzen dituenik, kasu batzuetan izan ezik (nagusiki, uharte-estatu txikietan, non bertako biztanleen % 40 beste herrialde batzuetara joaten den). Kasurik onenean, migrazioa tokiko eta herrialdeko ahalegin orokorrenen elementu osagarria izan daiteke, pobrezia murrizteko eta giza garapena hobetzeko. Izan ere, ahalegin horiek beti bezain funtsezkoak izaten jarraitzen dute.

Txosten hau idazten ari garen unean, mundua azken mende erdiko ekonomia-krisi okerrera ari da pairatzen. Ekonomia-uzkurdurek eta kaleratzeek milioika langileri eragiten diete, eta migratzaileak ez dira salbuespena. Gure ustez, egungo uzkurdura aprobetxatu egin behar da, migratzaileentzako akordio berri bat eratzeko. Akordio hori langileen aldekoa izango da, bai etxean, bai atzerrian; eta aldi berean, neurri protekzionistak eragotziko ditu. Susperraldiak azken mende erdian giza mugimenduen indar-eragileak izan diren joera inplizituak berpiztuko ditu, eta pertsona gehiago bultzatuko dute ohiko bizilekua aldatzera. Erabakigarria da gobernuak beharrezko neurriak martxan jartzeko prest agertzea.

## 1. koadroa **Funtsezko neurriak**

*Oztopoak gaindituz* txostenak aldaketen oinarrizko multzo bat proposatzen du, sei "oinarri" dituena. Oinarri bakoitzak bere onurak sortzen ditu; baina guztiak batera, aukerarik onena dira giza garapenean migrazioaren eraginak ahalik gehien aprobetxatzeko:

1. Kanal ofizialak liberalizatzea eta sinplifikatzea, kalifikazio gutxiko pertsonen atzerrian lana bilatzeko aukera emateko;
2. Migratzaileentzako oinarrizko eskubideak bermatzea;
3. Migrazioarekin lotutako transakzio-kostuak murriztea;
4. Migratzaileen eta helmugako komunitateen emaitzak hobetzea;
5. Barneko mugikortasunari esker, onurak onartzea; eta
6. Mugikortasuna herrialdeetako garapen-estrategien zati integral bihurtzea.

## **Gure proposamena**

Giza mugimendua geldiarazten duten oztopoak murriztu eta migratzen dutenekiko tratua hobetzen bada, giza garapenerako fruitu handiak lor daitezke. Hala ere, ausart jokatu behar da onura horiek benetan gertatzeko. Txosten honek, hain zuzen, migratzaileei, komunitateei eta herrialdeei mesede egingo dien aldaketan aldeko argudioak azaltzen ditu.

Gure proposamenak giza mugikortasunaren programako bi neurri garrantzitsuenak aztertzen ditu (onarpena eta tratua), eta politika hobek egiteko aukera ematen du. Gure funtsezko neurrietan azaltzen diren aldaketek epe ertainera eta luzera eskaintzen dituzte irabaziak (1. koadroa). Horiek helmugako gobernuen zuzenduta daude, eta horiez gain, bai eta jatorrizko gobernuen, beste funtsezko parte-hartzaile batzuei (batez ere, sektore pribatuari, gremio-elkarteei eta gobernu kanpoko erakundeei) eta migratzaileei beraiei ere. Politikak egiteko ardura-dunek aurre egiteko erronka berdinak badituzte ere, herrialdeko eta tokiko egoeratarako egokituak diren beste migrazio-politika batzuk proposatu eta burutu beharko dituzte beren herrialdeetan. Hala ere, badira modu orokorrago batean har daitezkeen zenbait praktika on.

Orain, bakarka aplikatu daitezkeen sei elementu garrantzitsu azpimarratuko ditugu. Sei elementuak bakarka erabili beharrean, batera erabiltzen badira ikuspegi oso bat izateko, ahalik eta eragin positibo handienak lortuko dira giza garapenean: egungo sarbideak liberalizatzea, langile gehiagok immigratu ahal izateko; migratzaileen oinarrizko eskubideak bermatzea; migrazioaren transakzio-kostuak murriztea; helmugako komunitateei zein migratzaileei mesede egiten dieten irtenbideak bilatzea; pertsonen mugimendua erraztea, beren herrialdearen barruan; eta migrazioa herrialdeko garapen-estrategietan integratzea. Neurri horiek guztiak ekarpen osagarriak eta garrantzitsuak dira giza garapenerako.

Funtsezko neurriek bi elementu nabarmentzen dituzte, egungo sarbide arruntak liberalizatzeke:

- Urte-sasoiko lanerako sistemak zabaltzea gomendatzen dugu; nekazaritza- eta turismo-sektorean, esaterako. Sistema horiek oso eraginkorrak direla erakutsi dute zenbait herrialdeetan. Esku-hartze honetan, gremio-elkarrekin eta enplegatzaile-elkarrekin parte hartu behar dutela proposatzen du praktika onak.

Horrez gain, jatorrizko eta helmugako herrialdeetako gobernuak ere parte hartu beharko dute; batez ere, sasoiko lan horietan urtetik urtera jarduten dutenentzat oinarritzko soldataren bermeak, osasun- eta segurtasun-arauak, eta xedapenak diseinatzen eta martxan jartzen (Zeelanda Berriaren kasuan, esaterako).

- Halaber, trebetasun askorik ez duten pertsonentzako bisa kopurua areagotzea proposatzen dugu, tokiko eskari kopuruaren arabera izateko. Izandako eskarmentuak iradokitzen digu esparru honetan praktika onak izateak hauek barne hartzen dituela: etorkinek enplegatzailea aldatzeko eskubidea daukatela segurtatzea (*enplegatzaileen transferigarritasuna* ere esaten zaio), etorkinei egonaldia luzatzea aldarrikatze eskubidea eskaintzea eta aldi baterako bizileku iraunkor bat izateko neurriak diseinatzea, bisa indarrean duten denboran itzultzeko bidaiak erraz egiteko aukera izatea, eta metatutako gizarte-segurantzaren prestazioak lekualdatzen uztea, duela gutxi Suedian onartutako aldaketaren arabera.

Helmugako herrialdeek erabaki behar dute zenbat migratzaile sartzen utzi nahi dieten. Erabaki horiek eztabaida publikoa barne hartzen duten eta guztien interesak orekatuko dituzten prozesu politiko bidez hartzen dira. Zenbat migratzaile sar daitezkeen adosteko mekanismoen gardenak eta enplegatzaileen eskarien arabera izan behar dute, baldintza ekonomikoaren arabera kuota ezarritik.

Helmugako herrialdeetan, etorkinen oinarritzko giza eskubideak urratzen dituzte, maiz. Gobernuak langile horien babesa bermatzeko nazioarteko hitzarmenak berresten ez badituzte ere, segurtatu egin behar dute lantokian eskubide osoak izango dituztela: lan bera soldata bera, baldintza duinak eta talde-antolamendua, besteak beste. Horrenbestez, arduraz jardun beharko da, diskriminazioa errotik kentzeko. Jatorrizko eta helmugako herrialdeetako gobernuak elkarrekin lan egin dezakete, atzerrian lortutako agiri edo kredentzialak aitortzea errazteko.

Eguno atzeraldiak egoera bereziki ahulean utzi ditu migratzaileak. Helmugako zenbait herrialdeetako gobernuak trinkotu egin dituzte migrazio-legeak, eta litekeena da migratzaileen eskubideak urratzen aritzea. Badira zenbait neurri, migratzaileak zein migratzaile izatekotan

daudenak atzeraldiaren ondorioz jasaten ari diren kostu izugarriak arintzeko; adibidez, lanik gabe geratutakoei beste enplegu bat bilatzeko aukera ematea (edo, gutxienez, abiatu aurretik beren arazoak konpontzeko behar beste denbora ematea) eta zer enplegu-aukera dagoen jakinaraztea (bai eta jatorrizko herrialdean zer -nolako atzeraldia dagoen adieraztea ere).

Nazioarteko giza mugimenduarentzat, gehienetan, transakzio-kostuak oso altuak izaten dira, bai herrialdeetako mugak zeharkatzeko beharrezko agiriak lortzekoak, bai administrazioaren eskariak betetzekoak. Normalean, atzeragarriak izaten dira (eta proportzionalki garestiagoak, kalifikatu gabeko pertsonentzat eta epe laburrerako kontratua duten haietzat), eta aurreikusita ez zegoen ondorioa izan dezakete: mugimendu irregularra eta kontrabandoa bultzatzea. 10 herrialdeetatik baten, pasaporte egitea per capita errentaren % 10 baino garestiagoa da. Beraz, ez da harritzekoa kostu horiek eragin negatiboa izatea emigrazio-tasetan. Jatorrizko zein helmugako herrialdeetako gobernuak prozedurak sinplifikatu eta agirien kostua murriz dezakete, eta bi aldeek elkarrekin lan egin dezakete bitartekotza-

### 1. koadroa Herrialdeen herenak baino gehiagok migratzeko eskubidea murrizten dute

Murrizketak barne lekualdaketa eta emigrazioan, GGIn kategorian

Murrizketak mugikortasunean, 2008

GGI kategoriak	Murriztaileak	Ez hain murriztaileak				Guztira
		1	2	3		
<b>GGI OSO ALTUA</b>						
Herrialdeak	0	3	1	3	31	38
Ehunekoa (%)	0	8	3	8	81	100
<b>GGI ALTUA</b>						
Herrialdeak	2	4	4	10	27	47
Ehunekoa (%)	4	9	9	21	57	100
<b>GGI ERTAINA</b>						
Herrialdeak	2	13	24	27	16	82
Ehunekoa (%)	2	16	29	33	20	100
<b>GGI BAXUA</b>						
Herrialdeak	2	5	13	5	0	25
Ehunekoa (%)	8	20	52	20	0	100
<b>GUZTIRA</b>						
Herrialdeak	6	25	42	45	74	192
Ehunekoa (%)	3	13	22	23	39	100

Iturria: Freedom House (2009).

Garapenean aurrera egiteko ekimen nagusiak ordeztu ez arren, migrazioa estrategia garrantzitsua izan daiteke, bizibidea dibertsifikatzen eta hobetzen saiatzen diren etxe zein familientzat

zerbitzuak hobetzeko eta erregulatzeko.

Oso garrantzitsua da migratzaile bakoitza ondo gizarteratzen dela ziurtatzea, bai eta migratzaile horiek gizarteratzen diren komunitateetan funtsezko zerbitzuek ez dutela gainezka egiten ziurtatzea ere, migratzaileek berekin ekartzen duten gehiegizko eskaria dela eta. Izan ere, migrazioa tokiko agintarientzat arazo bihurtzen bada, litekeena da transferentzia fiskal gehigarriak ere behar izatea. Migratzaileen seme-alabek hezkuntzan (eta gainerako lekuetan) sartzeko aukera berdinak dituztela segurtatuko da, eta gainerako haurren mailara iristen eta gizarteratzen lagunduko zaie. Horrela, haien aukerak hobetu eta baztertutako klase bat egotea eragotz daiteke. Funtsezkoa da eskola-adinean dauden haurrei tokiko hizkuntza erakustea, bai eta helduei ere. Helduek beren lantokian edo kudeaketa berezien bidez ikas dezakete; kudeaketa horiei esker, etxetik kanpo lan egiten ez duten emakumeengana ere iritsi daiteke. Egoera batzuetan, beste batzuetan baino neurri eraginkorragoak erabili beharko dira diskriminazioari aurre egiteko, gizarte-tentsioak bideratzeko eta, dagokion lekuan, etorkinen aurkako indarkeria-erasoak saihesteko. Sozietate zibilek eta gobernuek eskarmentu positibo handia dute diskriminazioari aurre egiteari dagokionez; sentsibilizazio-kanpainen bidez, esaterako.

Munduko sistema-plangintza zentralizatu gehienak desagertu badira ere, harrigarria da jakitea zenbat gobernuak (heren batek, gutxi gorabehera) murrizten duten praktikan barne-mugimendua (1. taula): oinarritzko zerbitzuen eskubideak eta prestazioak murrizten dizkiete bizi diren lekuan erregistratuta ez daudenei. Horrela diskriminatzen dira barne-migratzaileak, oraindik Txinan gertatzen den moduan. Txostenean, barne-migratzailei buruzko funtsezko gomendio bat adierazten da: oinarritzko zerbitzuen prestazioan zuzentasuna ziurtatzea. Berdintasunezko tratua garrantzitsua da aldi bateko zein urte-sasoiko langileentzat eta haien familientzat, eta lan egitera joan diren eskualdeetarako. Halaber, garrantzitsua da beren etxera itzultzen direnean zerbitzuen prestazio duina izaten jarraituko dutela segurtatzea bizilekua aldatu behar ez dezaten, eskolara joateko eta osasun-arreta izateko.

Garapenean aurrera egiteko ekimen nagusiak ordeztu ez arren, migrazioa estrategia garrantzitsua izan daiteke bizibidea dibertsifikatzen eta hobetzen saiatzen diren etxe zein familientzat; batez ere, garapen-bidean dauden herrialdeetan. Gobernuak aukera horretaz jabetu, eta migrazioa herrialdeko garapen-politiken

beste alderdi batzuetan sartu behar dute. Eskarmentua gogoan izanik, herrialdeetako baldintza ekonomikoak eta erakunde publikoen sendotasuna oso garrantzitsuak dira mugikortasunaren onura orokorrenak lortzeko.

### **Garapenerako bidea**

Programa honetan aurrera egiteko, beharrezkoa da lidergo azkar eta indartsu bat izatea, eta kudeaketa ausartak egitea, publikoa parte hartzera bultzatzeko eta migratzaileari buruzko gertaeretan sentsibilizatzeko.

Jatorrizko herrialdeetan, migrazioaren profilari eta haren onurei, kostuei zein arriskuei buruzko azterketa sistematikoagoa eginez, oinarri hobea lortzen da giza mugimendua herrialdeko garapen-estrategietan sartzeko. Emigrazioa ez da etxean garapena bultzatzeko ekimenen ordezkoa, baina mugikortasunak erraztasunak ematen ditu beste ideia, ezagutza eta baliabide batzuen berri izateko. Horiek prozesua osa dezakete, eta, zenbaitetan, prozesua bera hobetu.

Helmugako herrialdeetan, aldaketak 'nola eta noiz' egin jakiteko, baldintza ekonomiko eta sozialei buruzko azterketa errealista bat egin behar da. Azterketa horretan, kontuan izango dira iritzi publikoak eta tokiko eta herrialdeko murrizketa politikak.

Nazioarteko lankidetzak (batez ere alde biko edo eskualdeetako akordioen bidez egiten dena) baliagarria da migrazioaren kudeaketa hobetzeko, migratzaileen eskubideen babes eraginkorragoa lortzeko, eta migratzaileek jatorrizko eta helmugako herrialdeetara egiten duten kontribuzioa areagotzeko. Zenbait eskualde (Mendebaldeko Afrika eta Latinoamerikako Hego Konoa, esaterako) mugimendu askeko eremuak ari dira sortzen, truke autonomoagoa bultzatzeko, eta, era berean, migrazioaren onurak areagotzeko. Eskualde horietan sortutako lan-merkatu zabalak oso onuragarriak izan daitezke migratzaileentzat, haien familientzat eta komunitatearentzat.

Badira migrazioaren kudeaketa hobetuko duen munduko sistema berri bat sortzeko eskaerak. Gaur egun, 150 herrialdek baino gehiagok hartzen dute parte Migrazioari eta Garapenari buruzko Foro Orokorrean. Gobernuak, antzeko erronken aurrean elkarren arteko erantzunak izaten dituzte; joera horren berri izan dugu txosten hau prestatzen ari ginen bitartean.

*Oztopoak gaindituz* txostenak politikagileen programan sartzen du giza garapena, mundu guztian gero eta konplexuago bihurtzen ari den giza mugimenduaren ereduaren emaitza onenak lortzeko.

# Emaitzak eta joerak Giza Garapenaren Indizean 2007

Giza Garapenaren Indizea (GGI) herrialde jakin batek lortutako giza garapenaren adierazlea da, eta batez besteko aurrerapenak oinarritzko hiru alderditan neurtzen dira:

- Bizitza luze eta osasuntsua: bizi-itzaropena jaiotzean;
- Hezkuntza: helduen alfabetatze-tasa, eta lehen, bigarren eta hirugarren hezkuntzan matrikulazioen tasa gordin konbinatua; eta
- Bizi-maila duina: per capita barne-produktu gordina (BPGd), erosteko ahalmenaren parekotasuna (PPA) Estatu Batuetako dolarretan.

Hiru alderdi horiek Otik 1era ebaluatzen dira, eta batez bestekoa kalkulatzen da, Otik 1era guztizko GGiren balioa zehazteko. Gero, herrialdeak balio horren oinarriaren arabera ordenatzen dira; lehenengoak Giza Garapenaren Indizearen baliorik altuena izango du.

Txosten honetako GGI 2007. urteko datuetan oinarritzen da, eta 182 herrialdeetarako kalkulatzen zen. Gero, beste hiru herrialde gehitu ziren: Andorra eta Liechtestein (biak txostenaren historian lehen aldiz), eta Afganistan (lehen aldiz 1996tik). Txostenean agertzen diren emaitzetan kontuan hartzen dira datu berriak zein aurreko urteetako datuen berrikuspenak.

GGI horren emaitzetan (2007. urteko datuetan oinarritzen dira), ez da munduko egungo krisialdiaren eraginik islatzen, eta munduko herrialde askotan krisialdi horrek giza garapeneko lorpenetan eragin handia izango duela uste da.

Hurrengo orrialdeko taulan agertzen diren geziek sailkapenean adierazten dute zer aldaketa egon diren 2006tik 2007ra, datu kronologikoetan

eta koherenteetan oinarrituta. Denboraldi horretan, lau herrialdetan GGiren *balioak* behera egin zuen, per capita BPGd jaitsi zelako haietan guztietan; 174 herrialdetan, berriz, balio horrek gora egin zuen. Une berean, beste aldaketa batzuk ere egon ziren *sailkapenean*. 2007. urtean, 2006arekiko dagokionez, 50 herrialde postuz jaitsi ziren sailkapenean (postu bat edo gehiago); eta beste horrenbeste herrialdek gora egin zuten. Izan ere, postu-aldaketak ez dira herrialde bakoitzaren jardueraren arabekoak soilik izaten, baizik eta gainerakoekiko egiten diren aurrerapenen arabekoak; batez ere, desberdintasuna balio txikikoa bada. Txinak izan zuen aurrerapenik handiena (zazpi leku), eta horren atzetik Kolonbiak eta Peruk (bost leku). Herrialde horietako bakoitzean, hazkundera azkar areagotu delako gertatu da aurrerapen hori.

Zerrendako lehen postuan Norvegia dago, bigarren postuan Australia eta hirugarrenean Islandia; hau da, pasa den urteko postu berak dituzte, azken datuen arabera. Lehen 10 postuetan aldaketa gutxi egon dira, herrialde bakarra sartu baita: Frantzia, Luxenburgoren ordean. Indizearen beste muturrean, Nigeria, Afganistan eta Sierra Leona azken hiru postuetan daude, hurrenez hurren, eta horiek ere ez dute posturik aldatu 2006tik 2007ra. Azken hamar postuetan ez da beste herrialderik sartu bi urte horietan.

Herrialde gehienek ez zuten bi postu baino gehiago aldatu sailkapen orokorrean. Esaterako, Saharaz hegoaldeko Afrikan, Ghanak bi postu egin zuen gora (hezkuntzan izandako lorpen handiei esker), eta Txaddek, Mauriziok eta Swazilandiak bi postu galdu zituzten.

# Giza Garapenaren Indizea 2007

2007ko GGren balioa eta sailkapena, eta 2006tik 2007ra arteko aldaketak sailkapenean

Oharra: ↑ 2006tik 2007ra artean herrialdeak postua zenbat aldiz hobetu zuen adierazten du.  
↓ 2006tik 2007ra artean herrialdeak postua zenbat aldiz galdu zuen adierazten du.  
Zuriuek 2006tik 2007ra artean herrialdeak ez zuela aldaketarik izan adierazten du.

Giza garapen oso handia (GGI ≥ 0.900)		Lituania		Txina		Yemen	
Norvegia	0.971 <b>1</b>	0.870 <b>46</b>		0.772 <b>92</b> ↑ 7		0.575 <b>140</b> ↑ 1	
Australia	0.970 <b>2</b>	Antigua eta Barbuda	0.868 <b>47</b> ↑ 1	Belize	0.772 <b>93</b> ↓ 3	Pakistan	0.572 <b>141</b> ↑ 1
Islandia	0.969 <b>3</b>	Letonia	0.866 <b>48</b> ↑ 2	Samoa	0.771 <b>94</b> ↑ 2	Swazilandia	0.572 <b>142</b> ↓ 2
Kanada	0.966 <b>4</b>	Argentina	0.866 <b>49</b> ↓ 2	Maldivak	0.771 <b>95</b> ↑ 2	Angola	0.564 <b>143</b>
Irlanda	0.965 <b>5</b>	Uruguai	0.865 <b>50</b> ↓ 1	Jordania	0.770 <b>96</b> ↓ 1	Nepal	0.553 <b>144</b>
Herbehereak	0.964 <b>6</b> ↑ 1	Kuba	0.863 <b>51</b>	Surinam	0.769 <b>97</b> ↑ 1	Madagaskar	0.543 <b>145</b>
Suedia	0.963 <b>7</b> ↓ 1	Bahamak	0.856 <b>52</b>	Tunisia	0.769 <b>98</b> ↑ 2	Bangladesh	0.543 <b>146</b> ↑ 2
Frantzia	0.961 <b>8</b> ↑ 3	Mexiko	0.854 <b>53</b> ↑ 1	Tonga	0.768 <b>99</b> ↓ 5	Kenya	0.541 <b>147</b>
Suitza	0.960 <b>9</b>	Costa Rica	0.854 <b>54</b> ↓ 1	Jamaika	0.766 <b>100</b> ↓ 8	Papua Ginea Berria	0.541 <b>148</b> ↓ 2
Japonia	0.960 <b>10</b>	Libia	0.847 <b>55</b> ↑ 1	Paraguai	0.761 <b>101</b>	Haiti	0.532 <b>149</b>
Luxenburgo	0.960 <b>11</b> ↓ 3	Oman	0.846 <b>56</b> ↓ 1	Sri Lanka	0.759 <b>102</b>	Sudan	0.531 <b>150</b>
Finlandia	0.959 <b>12</b> ↑ 1	Seychelleak	0.845 <b>57</b>	Gabon	0.755 <b>103</b>	Tanzaniako Errepublika Batua	0.530 <b>151</b>
Estatu Batuak	0.956 <b>13</b> ↓ 1	Venezuela	0.844 <b>58</b> ↑ 4	Aljeria	0.754 <b>104</b>	Ghana	0.526 <b>152</b> ↑ 2
Austria	0.955 <b>14</b> ↑ 2	Saudi Arabia	0.843 <b>59</b> ↓ 1	Filipinak	0.751 <b>105</b>	Kamerun	0.523 <b>153</b> ↓ 1
Espainia	0.955 <b>15</b>	Panama	0.840 <b>60</b> ↑ 1	El Salvador	0.747 <b>106</b>	Mauritania	0.520 <b>154</b> ↓ 1
Danimarka	0.955 <b>16</b> ↓ 2	Bulgaria	0.840 <b>61</b> ↓ 2	Siriako Arabiar Errepublika	0.742 <b>107</b> ↑ 2	Djibuti	0.520 <b>155</b>
Belgika	0.953 <b>17</b>	Saint Kitts eta Nevis	0.838 <b>62</b> ↓ 2	Fiji	0.741 <b>108</b> ↓ 1	Lesotho	0.514 <b>156</b>
Italia	0.951 <b>18</b> ↑ 1	Errumania	0.837 <b>63</b> ↑ 1	Turkmenistan	0.739 <b>109</b> ↓ 1	Uganda	0.514 <b>157</b> ↑ 1
Liechtenstein	0.951 <b>19</b> ↓ 1	Trinidad eta Tobago	0.837 <b>64</b> ↓ 1	Okupatutako lurralde palestinarrik	0.737 <b>110</b>	Nigeria	0.511 <b>158</b> ↓ 1
Zeelanda Berria	0.950 <b>20</b>	Montenegro	0.834 <b>65</b>	Indonesia	0.734 <b>111</b>		
Erresuma Batua	0.947 <b>21</b>	Malaysia	0.829 <b>66</b>	Honduras	0.732 <b>112</b>	<b>Giza garapen apala (GGI &lt; 0.500)</b>	
Alemania	0.947 <b>22</b>	Serbia	0.826 <b>67</b>	Bolivia	0.729 <b>113</b>	Togo	0.499 <b>159</b>
Singapur	0.944 <b>23</b> ↑ 1	Bielorrusia	0.826 <b>68</b> ↑ 1	Guyana	0.729 <b>114</b>	Malawi	0.493 <b>160</b> ↑ 1
Hong Kong (Txina)	0.944 <b>24</b> ↓ 1	Santa Luzia	0.821 <b>69</b> ↓ 1	Mongolia	0.727 <b>115</b> ↑ 1	Benin	0.492 <b>161</b> ↓ 1
Grezia	0.942 <b>25</b>	Albania	0.818 <b>70</b>	Vietnam	0.725 <b>116</b> ↓ 1	Ekialdeko Timor	0.489 <b>162</b>
Koreako Errepublika	0.937 <b>26</b>	Errusiar Federazioa	0.817 <b>71</b> ↑ 2	Moldavia	0.720 <b>117</b>	Boli Kosta	0.484 <b>163</b>
Israel	0.935 <b>27</b> ↑ 1	Mazedonia	0.817 <b>72</b>	Ekuatore Ginea	0.719 <b>118</b>	Zambia	0.481 <b>164</b>
Andorra	0.934 <b>28</b> ↓ 1	Dominika	0.814 <b>73</b> ↓ 2	Uzbekistan	0.710 <b>119</b>	Eritrea	0.472 <b>165</b>
Eslovenia	0.929 <b>29</b>	Grenada	0.813 <b>74</b>	Kirgizistan	0.710 <b>120</b>	Senegal	0.464 <b>166</b>
Brunei	0.920 <b>30</b>	Brasil	0.813 <b>75</b>	Cabo Verde	0.708 <b>121</b>	Ruanda	0.460 <b>167</b>
Kuwait	0.916 <b>31</b>	Bosnia-Herzegovina	0.812 <b>76</b>	Guatemala	0.704 <b>122</b> ↑ 1	Gambia	0.456 <b>168</b>
Zipre	0.914 <b>32</b>	Kolonia	0.807 <b>77</b> ↑ 5	Egipto	0.703 <b>123</b> ↓ 1	Liberia	0.442 <b>169</b>
Qatar	0.910 <b>33</b> ↑ 1	Peru	0.806 <b>78</b> ↑ 5	Nikaragua	0.699 <b>124</b>	Ginea	0.435 <b>170</b>
Portugal	0.909 <b>34</b> ↓ 1	Turkia	0.806 <b>79</b> ↓ 1	Botswana	0.694 <b>125</b> ↑ 1	Etiopia	0.414 <b>171</b>
Arabiar Emirerri Batuak	0.903 <b>35</b> ↑ 2	Ekuador	0.806 <b>80</b> ↓ 3	Vanuatu	0.693 <b>126</b> ↓ 1	Mozambike	0.402 <b>172</b>
Txekiar Errepublika	0.903 <b>36</b>	Maurizio	0.804 <b>81</b> ↓ 2	Tadjikistan	0.688 <b>127</b>	Ginea Bissau	0.396 <b>173</b> ↑ 1
Barbados	0.903 <b>37</b> ↑ 2	Kazakhstan	0.804 <b>82</b> ↓ 1	Namibia	0.686 <b>128</b> ↑ 1	Burundi	0.394 <b>174</b> ↑ 1
Malta	0.902 <b>38</b> ↓ 3	Libano	0.803 <b>83</b> ↓ 3	Hegoafrika	0.683 <b>129</b> ↓ 1	Txad	0.392 <b>175</b> ↓ 2
				Maroko	0.654 <b>130</b>	Kongoko Errepublika Demokratikoa	0.389 <b>176</b> ↑ 1
				Sao Tome eta Principe	0.651 <b>131</b>	Burkina Faso	0.389 <b>177</b> ↓ 1
<b>Giza garapen handia (0.900 &gt; GGI ≥ 0.800)</b>		<b>Giza garapen ertaina (0.800 &gt; GGI ≥ 0.500)</b>		Bhutan	0.619 <b>132</b> ↑ 1	Mali	0.371 <b>178</b> ↑ 1
Bahrain	0.895 <b>39</b> ↓ 1	Armenia	0.798 <b>84</b> ↑ 1	Laosko Herri Errepublika Demokratikoa	0.619 <b>133</b> ↓ 1	Ekialdeko Afrikako Errepublika	0.369 <b>179</b> ↓ 1
Estonia	0.883 <b>40</b>	Ukraina	0.796 <b>85</b> ↓ 1	India	0.612 <b>134</b>	Sierra Leona	0.365 <b>180</b>
Polonia	0.880 <b>41</b> ↑ 1	Azerbaijan	0.787 <b>86</b> ↑ 2	Salomon Uharteak	0.610 <b>135</b>	Afganistan	0.352 <b>181</b>
Eslovakia	0.880 <b>42</b> ↑ 2	Thailandia	0.783 <b>87</b> ↓ 1	Kongo	0.601 <b>136</b>	Niger	0.340 <b>182</b>
Hungaria	0.879 <b>43</b> ↓ 2	Iran (Irango Errepublika Islamiarra)	0.782 <b>88</b> ↓ 1	Kanbodia	0.593 <b>137</b>		
Txile	0.878 <b>44</b> ↓ 1	Georgia	0.778 <b>89</b> ↑ 2	Myanmar	0.586 <b>138</b>		
Kroazia	0.871 <b>45</b>	Dominikar Errepublika	0.777 <b>90</b> ↓ 1	Komoreak	0.576 <b>139</b>		
		Saint Vincent eta Grenadinak	0.772 <b>91</b> ↑ 2				